



## Eguberrietako erosketak aurreratzeko deia

Pilaketak saihesteko aukera onena erosketak garaiz egitea da. Aurten, bereziki, tokian tokiko kontsumoa sustatu nahi da / 2-8

### Iriondo eta Lete gogoan hartzeko hitzorduak

Ostiral honetan "Ez gaude konforme, Lourdes Iriondo eta hamaika lore" ikuskizuna taularatuko dute Andoaingo Basteron. Xabier Lete hil zela hamar urte betetzear dira / 10



**Antzerkia eta musika, Andoaingo Basteroko Gabonetarako eskaintzaren oinarriak / 6**



**Ostalarien, dendarien eta merkatarien iritzia Eguberrien atarian. Panorama iluna ia kasu gehienetan / 2-5**



**Euskaraldiari amaiera emateko ekitaldia antolatu dute Andoainen, igande eguerdian / 7**

**Trasteleku eta biltegi txikien alokairua Urnietan**

TRASTELEKUIAK M<sup>2</sup> BATETIK AURRERA ENPRESENTZAKO BILTEGI HANDIAGOAK. ALTZARI-GORDELEKUIAK.

**barnE**

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA, Bulegoa: Muebles Iturbe barne.eus

Merkatuko preziorik onenak bermatzen ditugu!



Salkinen kanpaina berria.

## Bonoen zozketa Andoainen

Abenduaren 20ra bitarte Andoainen erosketa egiteak saria ekar dezake, eta ez nolanhikoa. 16 erosketa bono zozkatuko dituzte, eta bono bakoitzaren diru kopurua handi samarra da. 100 euroko 10 sari, 200 euroko beste bi eta 500 euroko beste bat zozkatuko dituzte Salkineko merkatalguneen artean. Aukera polita, beraz, Eguberrietako opariak egiteko garai honetan.

Andoainen urte zail honetan erosketa-bonoez gozatzeko aukera bikoitza izan da, "Han edo hemen, erosi Andoainen" kanpainaren bitartez. Hirugarrena Salkinen eskutik dator, Andoaingo Udalak eta Eusko Jaurlaritzak babestuta.

# Tokiko merkataritza sustatzeko garaia

Sekula ahaztuko ez dugun urtea amaitzen ari da. Gizarte bitzta erabat aldatu da, eta lehengora itzultzea kostako da oraindik. Arriskuak eta ahulguneak hor izanik, aukera berriak sortu dira. Bertatik bertara erosteko aukera ona dela, esaterako



Andoaingo Txitibar plaza, artxiboko irudian. AIURRI

### Erredakzioa ANDOAIN

Tokian tokiko merkatariaik aurrez aurre hitz egingo dizu, eta oso baliagarriak zaizkizun aholkuak eskainiko dizkizu. Ez diozu bidalketa edo garraio gasturik ordaindu behar, eta erreklamazioa egitea oso erraza zaizu. Bertatik bertara duzulako. Oso agerikoak dira tokian tokiko merkataritzaren alde egiteko abantailak. Bizi dugun urte zail honetan, adibide horiek guztiak berrestu ahal izan dira.

Zerbitzu ona, azkarra eta gertuko eskaintzen dute, gainera. Zer lirateke gure herriak merkataritzarik gabe? Badago aurrerari bat. Fikziozkoa, hori bai. 2018ko irailean Andoaingo merkatariek plastiko beltzez apaindu zituzten merkatalguneak. "Desagertu" egin ziren, herriki-deen begietara. Zer litzateke herri bat tokiko merkataritzarik gabe? Etorbizun beltza merkataritzarik ez duen herriarena. Mehatxu handia dute, ikusten

ez dena. Eta irakurleak oso ondo ulertuko du, adibide zehatzak jarrita. Zapata dendara sartu, probatu eta hanka egin. Jostailu dendara hurbildu, produktuari argazkia atera eta alde egin. Erosle izan daitezkeen pertsona batzuren jokabidea horixe da garaiotan, eta dendariak bada-kite zer dagoen jokabide horien atzean: On line merkataritza. Hilabeteotan premiazko zerbitzua eskaini digute dendariak. Ez diezaiegun hutsik egin.



Dendarien ekimenez abiatu da.

## Ostalarien alde, Urnietan

Hurkoari laguntzea du abiapuntu Urnietako hainbat merkatarik abian jarri duten ekimenak: "Ni ere ostalaria naiz". 42 komertzio hartu dute parte herriko ostalaritza sustatzeko proiektuan, eta nor bere aletxo uzi du; zozketa baterako produktuak eta zerbitzuak eskaini dituzte. Eskaintza zabala izango da parte-hartzaileentzat, frutez betetako saski batetik hasi eta fisioterapia sesio bateraino. Jada salgai daude txartelak, euro batean, Urnietako dendetan.

Abenduaren 20an egingen da zozketa, Youtubeko kanal baten bidez. Saria lortzeko aukera handia dago, zeren eta 37 banatuko baitira.

Enkarguak jasotzen ditugu

943  
593  
777

# “Gertukoari lagundu beharreko premia sartu zaio jendeari, eta garrantzitsua da hori”

**PELLO URRETABIZKAIA** MUAZPI HARATEGIA

"Ni ere ostalaria naiz kanpainan asko harritu nau herritarren erantzunak. Jarrera izugarria izan da"



Pello Urretabizkaia, harakina. AIURRI

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA  
**Egoera zaila bizi duzue garaiotan, ezta?**

Elikagai-sektoreko dendak gara egoera ondoen ematen ari garenak, gure salmentek ez dutelako behera egin. Are gehiago, esango nuke gora egin dutela, jendeak tokiko komertzioan kontsumitzen duelako. Alde horretatik, pribilegiatuak gara, beste hainbat kide une zailak igarotzen ari

dira-eta; batez ere garaiotan ostalariekin gogoratzen naiz. Oso une zailak igarotzen ari dira, eta ez da erraza.

**Zein eragin izan du zuen jardunean?** Luzatu egiten du gure jarduna. Garbitasuna oso garrantzizkoa da, noski. Ohitu gara, ikasi dugu, eta geroz eta errazagoa zaigu. Gainera, jendeak badaki nola portatu, nola egin gauzak. Alde horretatik bai, batez ere higie-

nean kontu gehiagorekin ibili behar dugu. Bezeroei dagokionean, bat edo bi sartzen dira harategian, eta gainontzeoak kanpoan itxaroten dute. Neguan zer egin pentsatzen ari gara, kale honetan izugarritzko haizeboladak sartu eta hotz handia egiten duelako.

**Eguberriak ate-joka ditugu; zuen salmenta baldintzatuko du pandemiak?**

Gabonetan asko igotzen da salmenta. Arautegia ez dakit nola geldituko den, badakigu seiko taldeak onartuta daudela, eta badirudi Gabonetarako hamarrera igoko dutela muga. Baina bai, horrek are gehiago ekarriko baitu talde txikitik elkartzea. Akaso erosketa zabaldu egingo da, baina kantitateak txikiagoak izango dira, batuko den jendeak talde murriztaz egingo dituelako otorduak. Gainontzeko urteetako jardunari eustea pentsatzen ari gara.

**Tokiko kontsumoaren gaineko kontzientzia eragitea ekarri du egoerak?**

Bai. Elikagai-sektoretik at dauden denda txikiek antzeman dute. Jendea kontzientziatu da. Gertukoari lagundu beharreko premia sartu zaio jendeari, eta garrantzitsua da hori. Guk ere somatu dugu jarrera hori "Ni ere ostalaria naiz" kanpainan. Askok harritu gaitu jendearen erantzunak; herritarren jarrera izugarria izanda. Kanpaina horren helburua diru-laguntzetatik haratagokoa da: sentsibilizazioa, solidaritatea eta babesia. Badakigu tabernetara ari dela jendea hots egiten etxera eramateko janaria eskatzen, zentzu handi batean, ostalariei laguntzeko.

**"ELIKAGAIEN SEKTORETIK KANPO DAUDEN DENDARI TXIKIEK ANTZEMAN DUTE EGOERA BERRIA"**

Urnietan erantzuna oso ona izaten ari da.

**Prestatutako janaria ere saltzen duzue.**

Hala da, bai. Baina familia askok jakiak etxean prestatzeko ohitura hartu dute. Izan ere, etxean gehiagotan egon behar duten honetan, umeekin batera sukaldatzeko tartea hartzen dute. Nire ustez, egoera zaila den arren, jendea berrasmatzen ari da, indarberritzen ari gara. Egindako janariari dagokionean, gehien eskatzen dena lasagna da, baita krocketak ere. Hanburgesa mota ezberdinak ere baditugu gurean.

**Otorduek badute indarra Gabonetan, ezta? Zein da zuenean gehien eskatzen den jakia?**

Azpizuna da gehien eskatzen dena. Hortik jotzen du jende askok. Erosoena da prestatzeko, partitzeko erraza da, bi, hiru edo lau xerra. Arkumea asko saltzen da, baina arkumeak lan gehiago ematen du, aurretik egin beharreko lana handiagoa delako. Aurrez erretzen jarri behar duzu, labea zikitzen da, eta horrek lana dakar. Baina arkumea hemengo produktua da eta horren alde ere egin behar ko guke.

**"KANTITATE TXIKIAN EROSIKO DA, BATUKO DEN JENDE KOPURUA TXIKIAGOA IZANGO BAITA"**

**Maskara aukera zabala**

**Arropa eta osagarriak**

evermine

Eguberri eta Urte berri on!!!

**Kale Nagusia, 6. Andoain. 943 591 224**

# "Jendea beldur da; ez dago lehengo lasaitasuna"

JUAN JESUS ELOSEGI GAZTELO

"Guretzat sasoi onena Eguberrietakoa da. Guztiok dugu beste umore bat gorputzean. Orain ez dago hori, eta normala da. Ez dago lehen zegoen lasaitasuna"



Juan Jose Elozegi, Gaztelo. AIURRI

**Alba Cabrera Jauregi URNIETA**  
**Pandemiak gogor egin die merkatariei. Zein eragin izaten ari da zuenean?**

Lanari dagokionez, aldatu egin da jarduna, higieneari eta garbitasunari gehiago erreparatu behar zaiolako. Sentimendu aldetik, ez dakigu zer gertatuko den, beldur horrekin egiten dugu lan. Egun batetik bestera inorkutsatuz gero, itxi egin behar da negozioa, denboraldi baterako gutxienez.

Horrek eragiten digu arazo gehien, egoera egun batetik bes-

tera aldatu daitekeela pentsatzeak ematen du beldur gehien.

**Urnietan ez ezik, Donostian ere baduzue denda. Harrera ona izaten dute zuen produktuek garaiotan?**  
Oso harrera ona izaten ari dira. Desberdina da bi herrietan, merkatu gehiago dagoelako Donostian. Ezin dugu kexatu ez batean, ez eta bestean ere. Jendearen jarrera oso ona izaten ari da; ez dugu kexarik, ez orain ez inoiz. Beti pozik egon gara jendearen jarrerarekin.

**Beldurra sumatzen al da erosleen artean?**

Azken aldi honetan gutxiago. Jendea ohiturak aldatzen doa, esaterako, elkarren arteko distantzia mantentzen dute bezeroek, eta denda barruan kideak daudela ikusiz gero kanpoan itxoaroten dute. Jendearen ohiturak aldatu dira zentzu horretan. Urduritasunari dagokionez, pentsatzen dut ohitu egingo gara elagoa honetara.

**Gabonetako otorduetan gozoek leku berezia dute postrean, ezta?**

Guretzat denboraldi onena dira Gabonak. Guztiok daukagu beste umore bat gorputzean, erosketak egiteko, opariak egiteko... Orain ez dago hori eta normala da, jendea beldur da, eta ez dago lehen zegoen lasaitasuna. Ez dakigu zer izango den, beldur hori badugu. Murrizketak ezarriko dira positibo kopuruak gora eginez gero, eta horrek eragina izango du salmentan.

**Zein dira egiten dituzuen gozo arrakastatsuenak?**

Gabonetako postrea normalean turroia izaten da. Horrez gain, polboroiak eta mazapanak ere saltzen dira. Erregeen data gerturatu orduko, errege-opila ere egiten dugu, baina denboraldi laburragoa izaten da hori, bi aste, hain zuzen. Urte osoari dagokionean, pastekek indar handia dute gurean.

# "Egoerak horrela jarraituz gero, itxiera pila izango dira"

PATXI IRIBAR OIANUME JATETXEA

"Asko eskertzen da *Ni ere ostalaria naiz* ekimena"

**Alba Cabrera Jauregi URNIETA**  
**Zortzi hilabetetan bi itxialdi: bat martxoan eta bestea orain. Nola eragiten dizue zuei?**

Oso gaizki. Izugarriko geldialdia eragiten du horrek, eta jendeak ohiturak eraldatzen ditu. Orduan, ez dakigu inoiz nola izango den egoera. Gainera, zailtzan zaude uneoro, batek positibo emanez gero, itxi egin behar duzulako. Hala, beti zaude beldurrarekin.

**Nola pentsatu duzue egoerari aurre egitea?**

Etxera eramateko janaria prestatzen hasi gara, bezeroa apur bat zaintzeko irtenbide gisa. Baina ea abenduan berriro ere irekitzeko aukera dugun eta ez garen pasatzen Gabonetan; bestela, berriro ere, urtarrilean berberean gaude.

**"Ni ere ostalaria naiz" proiektua jarri berri da martxan Urnietan, ostalariei laguntzeko asmoz.**

Asko eskertzen da. Nire ustez ostalaritza beharrezkoa da jendearentzat, eta, gainera, egoerak horrela jarraituz gero, itxiera pila izango dira.

**Jatetxea zin taberna irekita zenu-tenean, zein zen bezeroen jarrera?**

Hasiera batean, konfinamendua bukatzean, pentsatzen nuen denak normal jarraituko zuela, eta izugarriko beherakada izan genuen. Ondoren, poliki-poliki bezeroak joan dira animatzen; hala ere, jende askok du beldurra. Zenbat eta positibo gehiago agertu, geroz eta beldur handiagoa sortzen da.



Patxi Iribar, Oianume. AIURRI

**Bestelakoak izango dira Eguberrietako ospakizunak, aurreko urteekin alderatuta?**

Momentuz ez dago erreserbarik. Gainera, beti Gabonetan itxi egiten dugu, oporrak hartzen ditugulako. Aurten uzten badigute, ireki egingo dugu. Zentzu horretan, aurreko urteetako Gabonekin alderatuta, ez da galera handirik izango gurean.

**Zein da Gabonetako otordu batean falta ezin den platera?**

Arkumea. Oianumen gehienbat olagarroa, apoa, kokotea, arkumea eta txuleta eskatzen dira, besteak beste.

**"GABONETAN ITXI EGIN OHI DUGU. BAINA UZTEN BADIGUTE, AURTEN IREKI EGINGO DUGU"**



GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ONI

**AMABI**

haur eta gazte jantziak  
0-16 urte

943 57 31 62



Zumea kalea, 15 - behea. ANDOAIN

**SALDIAS**

ARRANDEGIA

Gabon zoriontsuak  
opa dizkizuegu

ZUMEA, 5  
ANDOAIN  
943 590 704



# "Produktu apartak ditugu geure lurraldean"

**IMANOL IRAOLA** LES COLS JATETXEKO SUKALDARIA

Andoaindarra bi Michelin izar dituen Les Cols jatetxean ari da lanean. Sukaldariak ostalaritza arloak bizi duen ez-ohiko egoerari buruz hitz egin du



Imanol Iraola Olot herriko Les Cols jatetxeoko sukaldaria. AIURRI

**Mikel Arberas** ANDOAIN

**Nolatan erabaki zenuen sukaldaritzak ikastea?**

Goiz eta arratsalde pasa ugari nituen amonarekin sukaldean. Hala ere, ez zen erabaki erraza izan, zeren eta kirolaren mundua izugarri gustuko nuen. Azkenean, sukaldaritzak aukeratu nuen, jatea oso gustuko nuelako eta dudalako. Zalantzak zalantza, unibertsitatetik eskolara hitzaldi moduko bat ematera etorri ziren eta konbentzitu egin ninduten sukaldaritzak ikasteko.

**Sukaldari andoaindarra, baina Katalunian lanean. Nolatan joan zinen hara lanera?**

Bi Michelin izar dituen Les Cols jatetxean nabil lanean, nire neskalagunaren gurasoena da. Ni hara joango ez banintz, argi dago zailagoa izango zela bera hona etortzea, jatetxea atzean utzi beharko zuelako. Nik ere jate txeko sukaldean egiten dut lan.

**Gogorra da sukaldaritzak lana jate txekoa?**

Ostalaritza gogorra da. Ordutegia zerbitzuaren arabera moldatzen dugu, baina asteazkene-

tik igandera egiten dugu lan; astelehenak eta astearteak nolabait esateko, geure jaiegunak dira. Goizeko hamarretatik arratsaldeko lauak arte, eta arratsaldeko zortzietatik gaueko hamabietara egonen dira sukaldeak irekita. Gauzak horrela, ordu-tegia bestelakoa daukagu sukaldariok.

Esanak esan, dastatzeko menuak egiten ditugu Les Cols jatetxean, zeinak bi Michelin izar dituen. Egunerokotasunean beste lan batekin alderatuz gero, tentsio handiagoa dagoela esango nuke; izan ere, bezeroa jate txean sartzen den mementotik denbora urte bilakatzen da, segunduak eta minutuak ondo kalkulatu behar dira, guztia behar bezala egiteko. Bezeroa sartu orduko ordularia martxan jartzen da.

**Kalitatezko janaria kontsumitzeko joera areagotu dela uste duzu?**

Nire ustez beti egon da ondo jateko ohitura hori. Kuadrilletan eta lagun artean itxulapikoa jarri, dirua aurreztu eta jate txekoa on batera joatearena aspalditik datorrela pentsatzen dut, Euskal Herrian batez ere. Kalitatezko janaria garestia dela esaten denean, nahastu egiten garela iruditzen zait; kalitatea esaten dudanean, bertako produktuaz,

mementoan jasotakoaz eta freskoaz ari naiz. Hau da, Baltzusketa baserriko uraza bat merkea izanik, goi mailako produktua izan daiteke. Gauza bera gertatzen da beste hainbat produktuekin. Beste adibide bat jarriz gero, merkatuan eros daitezkeen arrautzak kalitate handiagokoak eta osasuntsuagoak izango dira seguruenik supermerkatukoak baino. Kalitatezko janaria merkea izan daiteke, baina produktuak duen trazabilitatea jakin beharko litzateke: nork ekoitzi duen eta nondik datorren, beste askoren artean.

**Nola eragin du pandemiak jatetxeetan?**

Pandemiak sektore askotan egin du min. Hala eta guztiz ere, oro har, ostalaritzan, jatetxeetan eta turismoan eragina handiagoa izan da, izugarri sufritu dugu. Geure kasuan, urte honetan, lau hilabetez eduki dugu itxita jatetxea. Eskaintzen dizkiguten laguntzak urriak dira eta autonomoak pandemiaren eragina gogor pairatzen ari dira. Horrez gain, langileria ere asko jasaten ari da, ERTEen eta kaleratzeen ondorioz; gainera, estatuak ahalbidetutako laguntzak oso berandu iristen dira. Ez da ahaztu behar, jatetxeekin eta ostalariekin batera hornitzaileak edo banatzaileak ere asko direla. Negozioak itxiz gero, zeharka beste lan batzuei eragiten die. Laburbilduz, urtea gogorra izaten ari da, baina modu batera edo bestera aurrera egingo dugu.

**Gabonak ia hemen ditugu, lan gehiago edukitzen duzue garai horietan??**

Lan handia izaten dugu, jatetxeeko garai lanpetuenetakoa izaten da; izan ere, urtero *take away* edo eramateko janaria egiten dugu, eta eskaria handia izaten da, batez ere, Gabonetan eta Urte

## Gabonetako menua

"Hasteko zizka-mizka batzuk jarriko nituzke, krocketak, urdaiazpikoa edo dena delakoa. Ondoren, lehen plater gisara berdura menestra bat jarriko nuke urdaiazpiko zatitxoekin. Gure lurraldean kalitatezko barazkiak ditugu eta, sarritan, ez diogu beharrezko probetxua ateratzen; baserriarrek edo ekoizleekin hitz egin eta kalitatezko produktuak erosiko nizkieke. Bigarrenik, haragia edo arraina jarriko nuke. Gabonak aipatzean beti haragi edo arrain garestienak datorzkigu burura, baina, produktu zoragarriak eta prezio onekoak ditugu inguruan. Adibidez, legatza arrautzairinetan pasata, ez da horren garestia. Edota baserrietako oilaskoak, labean eginda, bere osagarri eta patatekin. Postretzat, berriz, mamia, turroia, esne-torrada eta horrelako gozoak jarriko nituzke. Tradizionalki Euskal Herrian asko kontsumitu diren produktuak baitira. Arrazoizko prezioa duen menua proposatu dudala uste dut".

Zahar gauean. Menua itxia izaten da. Horrez gain, urte zahar gauean kotilioia egiten dugu, 250 pertsona inguru biltzeko aukera izaten dugu; hala ere, aurtengo egoera dela medio ez dakigu zehazki zer egingo dugun.

# ORMENDI KIROLAK

## HELDUENTZAKO MUSUKO BERRIAK

Aukeran, Olentzerori eskatu



Kale Berria, 2

ANDOAIN

943 591 806

ormendikirolak@euskalnet.net



Gabon zoriontsuak



# Kulturaz gozatzeko aukera, baita neguko egun hotzetan ere

Andoingo Udalak "Gabon giroan, bizi kultura!" programazioa osatu du Gabonetarako. Musikaz zein antzerkiak gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Umore zikloak ordezkatu du IkusZirkus egitasmoa, hamaika urteko ibilbide oparoa osatu eta gero

**Alba Cabrera Jauregi** ANDOAIN

Kinka larrian utzi du kultu-sektorea koronabirusak sortutako egoerak. Askoren jarduna baldintzatu arren, buru-belarri dabilta lanean sortzaileak ikus-entzuleei zer gozatu emateko. Herri askotan kultur-ekitaldiak bertan behera gelditu behar izan dira, kutsatuen maila altua dela medio. Baina, datuek behera egin ahala, asko dira berrartu diren egitarauak, Andoain herrikoak, tartean.

"Gabon giroan, bizi kultura!" ekitaldi-sorta antolatu du Andoingo Udalak; adin tarte guztiei zuzendutako proposamenak biltzen dira bertan. Gainera, berrikuntza batekin dator urteko azken hila, izan ere, lehenengo, euskarazko Umore Zikloa ipiniko da martxan. Hala, egunotan plazak jendez lepo bete dituzten hainbat artista izango dira. Esaterako, "Losers" obra antzeztuko dute Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola; porrotaren gaineko hausnarketa egiten dute bertan. Bestalde, "Betetan be" antzerki konpainiak gaztetxe giroan ipiniko du ikuslea "Porno vs. Afrodita (Edo I love #Gorkaurbizu)" ikuskizunean. Azkenik, aski ezaguna den Portugaleko musikatik abiatuko da Xake Produzioak tal-



Ilyya Urrutia kultur teknikaria eta Txixu Ruiz zinegotzia. AIURRI

dearen azken ekoizpena: "Fadoak entzuten zituen gizona". Haurrak ere hitzartuko ditu kultur-egitarauak. Izan ere, Goazen telebistako fenomenoak emanaldi bikoitza egingo du, eta Lurraren aniztasuna izango du hipide Markeliñe taldeak "Kartoibiraka" obran.

Zer entzuna ere izango da Andoingo Bastero Kulturgunean. Alde batetik, flamenkoa eta euskara uztartzen dituen Sonakay taldea igoko da taula gainera. Beste alde batetik, bigarren diskoa estreinatuko du Pello Repa-

raz kantariaren Zetak taldeak. Hori ez ezik, Bilbotik zuzenean etorritako Zea Mays rock taldea ere izango da tartean, baita Nøgen talde gipuzkoarra ere.

Gainera, bisitari bereziak hartuko ditu Basterok Gabonek iraun bitartean. Andoingo erraldoi eta buruhandiak kulturguneko erakusketa-gelan egongo dira ikusgai. Beraz, harri-kartoizko protagonistez gozatzeko nahia duen orok aukera izango du herriko festetan berebiziko garrantzia duten pertsonaiak gertutik ikusteko.

**Sarrerren salmenta, datorren astelehenean hasita**

Abenduak 7tik aurrera egongo dira sarrerak eskuragarri Internet bidez Kutxabank gunean klik eginez. Modu elektronikoa erostea gomendatu du Udalak, sarrerak inprimatu behar ez izateko. Hala ere, aurrez aurreko salmenta egiteko aukera izango da, Basteroko leihatila irekiko da, goizean 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 16:30-19:30 bitartean.

Ikuskizun guztietan %25eko beherapena dute bazkideek, eta baita bestelako erraztasun batzuk ere. Bestek beste, sarrerak aurrez erreserbatzeko aukera dute, alegia, abenduaren 3tik aurrera.

Bestalde, Umorearen Zikloko saioetarako bono-eskaintza berezia egongo da: helduen ikuskizunetarako bonuak (hiru egun) 30 euro balioko du. Sarrerak bakarka erosita, 12 euroko prezioa izango dute, eta, aldiz, bi sarrera erosita bakoitzak 10na euro. 4 euroko kostua izango dute haurrentzako ikuskizunek, aldiz. Deskontuak Bastero Kulturguneko leihatilan bakarrik aplikatuko dira, hots, online erosiz gero ezingo da bonorik eskuratu.

**ABENDUAREN 7TIK AURRERA SARRERAK SALGAI IZANGO DIRA KUTXABANK-EN WEBGUNEAN**



Zea Mays. ZEAMAYS

## Egitarau oparoa Basteron

- Abenduak 23: Goazen 7.0.
- Abenduak 26: Sonakay.
- Abenduak 27: Zetak.
- Abenduak 28: Losers: Aitziber Garmendia & Jon Plazaola.
- Abenduak 30: Porno vs. Afrodita: Benetan Be. Urtarrilak 2: Zea Mays.
- Urtarrilak 3: Fadoak entzuten zituen gizona.
- Urtarrilak 4: Kartoibiraka: Markeliñe.
- Urtarrilak 7: Nøgen.

## Erraldoi eta Buruhandien erakusketa

Astelehenetik ostiralera 18:30-20:00.  
Larunbatetan 10:30-13:00 goizez, eta 18:30-20:30 arratsaldean. Abenduaren 24ean eta urtarrilaren 31n arratsaldean itxita. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita.

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

**Euskaraldia, atal berezia Aiurri, eus webgunean**

[aiurri.eus/bereziak/Euskaraldia](http://aiurri.eus/bereziak/Euskaraldia)

**#AHOBIZI #BELARRIPREST**

[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)

**Bonu hauetakoren bat irabazi nahi al duzu?**

- 500€ko sari 1
- 200€ko 5 sari
- 100€ko 10 sari

ZOZKETA: 2020-12-23



SALKIN

# “Musikagintzan jarraituko dut”

GOIATZ SALBADOR KANTARIA

Proiektu handiak sortzeko gogo bizia du, oinak lurrean edukita, betiere. Igandean Euskaraldiaren amaiera-ekitaldian parte hartuko du, Goiburuko San Esteban ermitan

Mikel Arberas ANDOAIN

## Noiz hasi zinen musikagintzan?

Sei urterekin, gutxi gorabehera. Aitak ere erlazio estua eduki du musikarekin, izan ere, trikitixa jotzen zuen. Gauzak horrela, solfeoan hasi nintzen eta 8 urterekin pianoa jotzea erabaki nuen. Amonak piano zahar bat du etxean eta horrek niregan eragina eduki zuela pentsatzen dut, pianoa jo nahi nuen.

Aurrerago abesbatzan izena eman nuen eta pianoa alde batera utzi behar izan nuen, urtebetez soilik aritu nintzen. Solfeoa utzita, abesbatzan jarraitu nuen duela pare bat urtera arte.

## Nolatan hasi zinen jendaurrean bakarlari gisa kantuan?

2019ko martxoaren 8an abestu nuen lehen aldiz jendaurrean, abesbatza kontuan hartu gabe. Andoaingo asanblada feministatik esan zidaten ea kantu batzuk joko nituen Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. Egun hura izan zen hasiera, kantari modura.

## Zeure kantuak konposatu eta idazten dituzu?

Printzipioz ez. Noizbehinka idazten ditut, baina egia esan presioa handia daukat. Lagun askok eskatzen didate. Aitortu beharra daukat, ikasketetan presioarekin lana egin dezakedala, aldiz, musikako kontuekin ez. Dena dela, aurrerago sorpresaren bat emango dut.



Goiatz Salbador andoaindarra. AIURRI

## Zein musika mota gogoko duzu kantatzeko?

Kanta makarrak gustuko ditut, esaterako, Punk edo Oi! estiloetako abestiak akustikora moldatzea gustuko dut. Horrez gain, akustikoak diren abestiak gogoko ditut. Duela gutxi ere Trap generoko kantua gitarrekin jotzeko moldatu nuen. Garrantzia ematen diot musikak eskaintzen duen moldaeraztasunari, hau da, edozein musika mota akustikora igarotzeko aukerari.

## Mundu honetan horren murgilduta egonda, nortzuk dira zure erreferente musikalak?

Horrenbeste genero gustuko ditudanez zaila da aukeratzea,

baina gehienbat Anari izan daiteke, nire antzeko estiloa duelako. Beste alde batetik, Punk generoko emakume erreferenteak Perla taldekoak izan daitezke. Gazteagoa nintzenean ere gertutasun handia eduki nuen country musika generorekin. Ikus dezakezunez, iturri askotatik edandakoa naiz.

## Azken aldian emanaldi ugari eskaintzen ari zinen, azkenekoa Andoaingo Gaztetxean zenuen, baina bertan behera geratu behar izan zen...

Asteburu honetan esan didate, abenduak 3aren eta Euskaraldiaren harira abenduaren 5ean Goiburun kontzertu bat emateko bertso eskolakoekin batera. Oraingoz hitzartua dudan kontzertu bakarra hori da.

## Kultur-gileak egoera zaila bizitzen ari dira pandemiaren ondorioz, baita zu bezalako musikariak ere. Zer diozu?

Askoz ere zailagoa iruditzen zait egoera bizibidea kultura munduan dutenentzat. Ez naiz ari soilik musikariez, baita eszenatoki atzean dauden talde eta teknikarier buruz ere. Oso egoera zaila da. Nire egoera bestelakoa da, ez bainaiz musikaz bizi.

Beharrezkoa da kultura aurrez aurre ikustea, jendeak behar du eta faltan botatzen da. Kulturarik gabeko gizartean, kalteak bi aldeak dira. Aitortu beharra daukat kontzertu gehia-

go eman nahiko nituzkela, baina tira, egoerak ez dit asko eragiten beste askorekin alderatuta.

## Instituzioen aldetik garrantzia nahikoa ematen zaio kulturari?

Argi geratu da ezetz. Kontuan eduki behar da, kasu honetan, profesionalak eta ez-profesionalak daudela; hau da, profesionalak kontzertuak eman ditzazkete, aldiz, ez-profesionalak muga gehiago dituzte. Ez dut esan nahi profesionalak babestuta daudenik, baina bien arteko ezberdintasuna nabarmendu nahi dut. Bi kasuetan mugak izugarriak dira. Profesionalak ez garenon kasuan, zer uste dute, ez ditugula segurtasun neurriak errespetatzen? Segurtasuna bermatzen badugu ez dut ulertzen zergatik ezin ditugun emanaldiak eskaini. Laburbilduz, izan profesionala edo ez izan, instituzioen aldetik guztiz ahaztu dira gurekin.

## Etorkizunari begira, zer?

Auskalo. Musikagintzan jarraituko dut, nirea egiten eta sortzen. Kontzertuak lortzen saiatuko naiz. Egia da ere, erlazioa dudan beste musikari batzuekin kontaktatu gehiago badudala, adibidez, etorkizunera begira kantaren bat elkarlanean egiteko, baina gutzia nahiko xumeki.

Disko bat argitaratzearena, berriz, umetatik amesten dudana zerbaite da. Hala ere, gauzak nahiko argi ditut eta errealista izan nahi dut, hankak lurrean ditudala uste dut; diska argitaratuko banu izugarria litzateke, baina inoiz ez dut pentsatu musikagintzatik biziko naizenik. Musika zaletasun gisa bizitzen dut. Ez pentsatu ateak isten ditudanik, baina ez dut gehiegi horretan pentsatu nahi, askotan desilusioak hartzen baitira.

## Euskaraldiaren amaierako ekitaldia

Larunbat honetan, abenduak 5, Andoaingo Euskaraldiak itxiera ekitaldia antolatuko du Goiburu auzoko San Esteban elizatzon. Kultur ekitaldia izango da, eta bertan gure herriko kultur-gileak izango dira protagonista nagusiak. Goiatz Salbador kantariarekin batera, Maizorri txalapartako kideak arituko dira eta baita Ion Beloki, Beñat Beloki eta Unai Ormaetxea bertsolariak ere. Sarrera mugatua da.

## Ez-ohiko Santakruzetan eskaini zenuen kontzertuak zer esan handia eman zuen...

Sorpresa izugarria hartu nuen. Harrituta geratu nintzen ikusle kopuruarekin eta kontzertuaren osteko mezu zorion mezu pilekin. Ez nuen espero. Horrelako harrera ez dut eskainitako beste kontzertuetan eduki.

## Egiten dituzun bertsoak eta kantuak sare sozialetan eskegitzen dituzu?

Duela gutxiko kontua da, Aimar Urruzuno Dukha taldeko gitarrajole eta abeslariarekin elkartu nintzen eta aipatu zidan kanturen bat grabatzeko gogoa edukiz gero, bera prest egonen zela baliabide nahikoak zituelako. Asteburu batean elkartu ginen eta pare bat kanta grabatu genituen, Youtuben daude eta, egia esan, kantuek harrera ona eduki dute.

# Ernaitza

## liburudenda

Gurean topatuko dituzu:

- Durangon aurkezten diren nobedadeak.
- Kultura bonoaren onurak.
- Joku, jolas eta opari gaiak.

## Eguberritako eskaintza bikaina

Zumea, 9. Andoain. 943 592 459

ernaitza@yahoo.com

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



GURE USTEZ

EGAPE IKASTOLAKO 4. MAILAKO IKASLEAK URNIETA

## Herritar agurgarria

Urnietako ikasle eta biztanle izanik, bertako komertzioan arazo bat dagoela konturatu gara, eta, horregatik, gure bizi kalitateak gora egin dezan, Urnietako komertzioa bultzatu nahi dugu gutun honen bidez.

Azken urteotan online erosketek gora egin dute eta egoera hori areagotu egin da COVID-19a dela eta; horrek komertzio txikietan krisi handia sortu du. Arazo horren aurrean aurrerapauso bat ematea eskatzen dugu, hau da, komertzio txikietan erostera itzuli behar dugu, gure herriari indarra emateko.

Komertzio txikietan erosteak honako onura hauek ekartzen dizkio gure herriari:

- Herriaren ekonomiak goranzko joera izango du.
- Dirua herritar xumeei emango zaie, ez aberatsei.
- Kutsadura txikiagoa izango da eta plastiko gutxiago

sortuko da, baita garraio bideek isurtzen dituzten kea eta gas arriskutsuak murriztu ere.

- Kalitate handiagoko produktuak erosiko dira, fisikoki ikusi eta ukitu daitezkeelako.
  - Produktuen kalitateak ez du parekorik.
  - Tratua zuzena da saltzailearekin.
- Badakigu gero eta errazagoa bihurtzen ari dela erosketak online egitea, baina guztiok herriaren etorkizunean pentsatu behar dugu eta bertako produktuak erostera bultzatu.

Espero dugu gure iritzia kontuan hartu eta gaiari buruz hausnartzeko tartea hartuko duzuela; guztion artean gure herriko, Urnietako, komertzio txikia merezi duen tokira eraman dezagun. Eskerrik asko.

# 'Egunean Behin' taldean OKM saski dotorea

Bertako produktuez osaturiko saski ederra zozkatzen ari dira Andoingo Euskaraldia batzordea eta Aiurri. Hirurehundik gora partaide ibili ziren lehian aurreko astean, "Aiurri" taldean. Igandera bitarteko lehiakideen artean beste bi saski banatuko dira

## Erredakzioa ANDOAIN

Udaberrian izan zuen arrakasta beretsua izaten ari da, berriro ere, Egunean Behin lehiaketako "Aiurri" taldea. Eta bada motibo garrantzitsua arrakasta horren atzean: Euskaraldiak eta Aiurrik aurreko asterako eta aste honetarako bina saski zozkatuko dituen iragarpena. Argazkia ikusita, bikaina da saskia: Babarrunak, porruak, intxaurrak, piperrak, sagardoa, intxaurrak, gazta, kalabaza...

Lehen bi sarituen berri eman eta gero, abenduaren 9an bi saridun berriek saski berri bana jaso ahal izango dute. Zorte on parte hartzaile guztiei!



Saskiak OKM izaerako produktu ugari ditu. AIURRI

txapelak, mantalak

• Baserritar jantzieta aukera zabala  
• Era guztietako bordatuak  
• Dantzarako arropa

# Keinu

Maskara berriak

Kale Nagusia, 12. ANDOAIN  
637 283 224  
keinuandoain@gmail.com  
www.txapelasybordados.com  
www.txapelabordatuak.eus



Gabon zoriotsuak  
opa dizkizuegu

aldama\_tapia  
aholkularitza

Txitibar plaza 3\_behea

Andoain

943 594 476\_943 300 167



# Andoaingo eta Urnietako egoera epidemiologikoa

Urnietan azken astean kasu positiboen kopurua nabarmen jaitsi da. 0 eta 1 artean daude azaroaren 25etik hona antzemandako kasuak. Andoainen ere jaitsiera nabarmena izan da. Aurreko asteko datuekin alderatuta, kopurua erdira jaitsi da

## Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Euskadiko eta Gipuzkoako egoera onbideratzen ari den bezala, Andoaingo eta Urnietako egoera ere hobea izaten ari da. Urnietan lasaitu ederra hartu zuten, eta Andoain ere lasaitasun eremu horretara iristen ari da. Datuen hobekuntza ikustek poza ematen du.

## Andoain eremu laranja

Gauzak ondo, Andoain eremu gorritik irtengo da laster. Urriaren 19an 495,15eko intzidentzia tasa metatua izan zuen. Geroztik eremu gorrian izan da. Abenduaren 1eko datuei begira, tasa 515,22koa zen.

## ANDOAIN, ASTEZ ASTE

### Azaroak 25-abenduak 1:

- 26 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 515,22.
- ID: 0,65.

### Azaroak 18-24:

- 51 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 796,25.
- ID: 0,82.

### Azaroak 11-17:

- 68 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 970,22.
- ID: 0,92.

### Azaroak 4-10:

- 77 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 1057,21.
- ID: 1,18.

### Urriak 28-Azaroak 3:

- 81 kasu positibo.

## URNIETA, ASTEZ ASTE

### Azaroak 25-abenduak 1:

- 4 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 274,64.
- ID: 0,89.

### Azaroak 18-24:

- 13 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 306,95.
- ID: 0,58.

### Azaroak 11-17:

- 6 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 533,12.
- ID: 0,32.

### Azaroak 4-10:

- 27 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 1647,82.
- ID: 0,59.

### Urriak 28-Azaroak 3:

- 75 kasu positibo.



IREKIA

## Ospitaleratzeak beheruntz doaz

Aspaldiko partez daturik baxuena eman du Osakidetzak. 129 lagun zeuden, abenduaren 2an. Azaroaren 30ean 136 lagun zeuden egoera larrian. Ospitaleratzeetan ere jaitsiera nabarmena eman da. Astelehenean 418 lagun zeuden ospitalean, eta asteazkenean 362.



IREKIA

## Hamar lagun Eguberrietan

Eusko Jaurlaritzak argi utzi nahi izan du gehienez ere 6 pertsonako bilkurak onartzen direla Euskadin, eta Eguberrietako egun seinatuarekin salbuespena egiteko prest daudela. Hots, abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean eta 6an hamar pertsonako taldeak elkartzeko onartzeko prest daude. Erkidegoen artean egingo duten bileran hartuko da erabakia.

## Ostalarien mobilizazioak

Duela bi asteko manifestazio jendetsuaren ondoren, ostalariek elkarretaratzea deitu zuten Goikoplazan. Laguntzak beharrezkoak direla erreskatea aldarrikatu zuten, jendaurrean egin zuten adierazpena. Mobilizazioekin jarraituko dutela dirudi. Antza, Eusko Jaurlaritzaren LABI aholku batzordeak datorren abenduaren 9an hartuko du ostalaritzari buruzko erabakia.



AIURRI

**Euskal Sagardoa OnLine**

**Erosi eta osatu zure kaxa gustuko dituzun sagardoekin**

**90 sagardo mota baino gehiago!**

www.SAGARDOA.eus

SAGARDOA™  
Beltze Origin

www.SAGARDOA.eus



Xabier Lete kantaria, sortzez oiartzuarra baina urte luzez Urnietan bizi izan zena. MOONMAGAZINE

# Xabier Lete gogoan hartzeko ekimen-sorta

2010eko abenduaren 4an zendu zen Xabier Lete, euskal kulturaren erreferentzia garrantzitsuenetako bat. Izaera polifazetikoa zuen, poeta, kantari edo idazle gisa azaldu zuena. Liburua, dokumentala eta sentikariak ez dira faltako udazken-neguan

## "Ni naiz Lete" dokumentala

Baleuko etxeak ekoiztutako lan honetan, Xabier Leteren abesti eta poemen inguruko testigantza utzi dute Kirmen Uribek, Miren Agur Meabek, Gontzal Mendibilek, Mikel Urdangarinek, Miren Amurizak, Ines Osinagak, Unai Iturriagak, Igor Elortzak eta Karmele Jaiok, besteak beste. Antzoki Zaharrean izango da estreinaldia, ostegun honetan, saio bikoitzean.



BALEUKO

## "Loreak eta zauriak"

Kontraste ugariko sortzailea zen Xabier Lete. Hura gogoan hartuz ibilbide luzeko artistak sentikaria eskaintzen ari dira. "Xabier Lete kantari" ko partaide dira:

- Beñat Gaztelumendi, bertsoak eta testuak.
- Xabier San Sebastian, ahotsa eta gitarra.
- Joserra Senperena, pianoa.
- Quico Pugés, biolontxelo.



LOREAK ETA ZAURIK

## "Urrats urratuak"

Bale Zuriak argitaletxeak omenaldi berezia egin nahi dio Xabier Leteri, hamar saiakera labur eta hamar hurbilketa liburu batean bilduz. Horretarako, hamar idazle eta aditu bildu ditu: Arantxa Urretabizkaia, Anjel Lertxundi, Juan Kruz Igerabide, Lourdes Otaegi, Itxaro Borda, Inazio Mujika Iraola, Jon Gerediaga, Jon Martin, Alex Gurrutxaga eta Ainhoa Urien.



IREKIA



Urnietako  
udala



andoaINDARRA  
euskaraz



IRITZIA

JON GARMENDIA 'TXURIA' IDAZLEA

## Beti izango da atzo

Absentziak denborarekin neur-zen hasi ginenean ohartu ginen ez zirela hain neurgailu zehatzak. Nola azaltzen du urte batek adibidez, edo bik, edo hiruk, maite duzun pertsona horren falta? Nola kontatzen dira malko artean pasatako gauak, mahaian, etxe-ko sofán, egunerokoa marrazten zenuten lekuetan hutsuneak baizik sentitzen ez dituzun egunak? Maite den edozeinen absentzia bihotzeko min bat da, heriotza bere gordintasunean, bizitzari kendu zaion irriñoa, eta ez duzula berriro ikusiko sinistu beharra, zitzada bat, memoriaraino ailegatuko zaizun momentu tristea. Gabe bizitzen ikastea, agian, besterik ez dago. Aurrera egiteko. Ukan duzula eta izan dela, pentsamendura ekartzen duzun aldi oro, babes eta harrotasunez, gozamen puntu bat sentitzeko.

Hamar urte Xabier Lete joan zela, eta aurrez aipatu dudan mina bere hurbilekoetan imajinatzen dut, halabeharrez, min

desberdinak ere badaudela uler-zen baitut, bizirik dago oraindik enetzat, eta ustez, baita zuretzat ere, irakurle. Funtsean, hamar urte maite dudan norbait ikusi gabe, eta harekin elkartuko banintz utzi nuen toki berean berreskuratuko nuke harremana, denborarik pasa ez dela jakinda, askotan hori ere bai baitago, norbaitekin pentsamendua izan baduzu, eta egun askotan hura oroitu, pasa den denbora tartea ez da existitzen, beti da atzo. Ez da nehoiz isildu, nehor gutxi ahanzi da berekin, eta ez bada antzerki lan batean, musika eta poesia uztartzen dituen emanaldi askotan presente da oraino.

Xabierrekin, bere olerki, kantu eta orohar egunero gozatzeko eskaini digun obra handi horrekin, beti izango da atzo. Bestalde, atzo erakutsi zigula oroitzen baitut antzerkia, hitzen inportantzia, pentsatzeko, espresatzeko, nor izaitzeko, zu zeu, adibidez. Txikitako oroimena datorkit,

ikastolakoa, antzerkian nola jarduten ginen, isilean lan eskerge egindakoa baita arlo horretan ere, beti kulturaren bultzadan, beti eskueran zeukana emanaz, eta jeinu handiak bezala jenioa agertuta batzuetan.

Amak hurbileko harremana zuen berekin eta Lourdesekin, eta poetarengana hurbiltzeko zortea izan nuen adiskidantza haren bidez. Bizitzak lerro zailletan jarri ninduen gero, Toulouseko kartzelan, Okzitanian, ez dut Frantzia idatzi, okzitanoen berri Xabier berak eman zidan gutunez, eta hor ere irakasle jardun zen; harreman epistolarra eduki genuen denbora luze batez eta ekarpen handia egin zidaten bere hausnarketa eta aipamen anitzek. Horrentzat dut presente, asko akordutzen naiz berekin, eta atzo izan balitz bezala oroitzen dut dena. Azken batean, atzo Xabierrekin egon garela, sentsazio hori utzi digu askori, eta uste dut atzo asko etorriko direla gerora oraindik.

# Lourdes Iriondo, herriari kantatzen zion emakumea

Lurdes Iriondo Urnietako sortzaile eta musikaria gogoan hartuko dute ostiral honetan, Andoaingo Basteron kulturgunean. “Ez gaude konforme, Lurdes Iriondo eta hamaika lore” ikuskizuna iluntzeko 19:00tan hasiko da.



Iriondo, alboan Lete duela. BIDE GILEAK

**Erredakzioa** ANDOAIN

68 urte zituela, 2005eko abenduaren 27an zendu zen Lourdes Iriondo. Musikagintza aspaldi alde batera utzi bazuen ere, Ez Dok Amairu taldeko kidea eta euskal kulturagintzako erreferentzia nagusietakoa da. Historian atzera eginez, Iriondok Andoainen eskaini zuen lehen emanaldia, Ikastolen aldeko jaialdi batean. 1964. urtea zen.

Hori dela eta sentikaria antolatatu dute. Data bat egiten du, hain zuzen, Leteren heriotzaren hamargarren urteurrenarekin.

**“Ez gaude konforme, Lurdes Iriondo eta hamaika lore”**

Andoaingo Udalak ETB1-eko “Oholtzan” saioarekin batera landutako ekoizpena da. Emakumeen partaidetza zabala izango da. Olatz Salvador, Paule Bilbao eta Josune Arakistain abeslariak ez ezik, Antton Valverde eta Idoia Hernandez piano jotzaileak ere taula gainera igoko dira. Baita Oinkari dantza taldeko kideak, Alaia Martin bertsolaria, Bihotz taldeko txalapartariak eta Easo abesbatza ere.



IRITZIA

JUAN LUIS ZABALA IDAZLEA

## Ostikolari samurra

*Habanera* entzunarazi nionean ez zitzaion gustatu. Gozoegia iruditu zitzaion. *Xalbadorren heriotzean* aurkeztu nionean, antzeko inpresioa eragin zion. Baina *Langile baten seme* entzun zuenean dena aldatu zen.

—A ze zakartasun indartsua! Ostikoka kantatzen dik! Aita zena errieta egiten ekartzen zidak gogora! Zer diote hitzek?

—Langile baten semea dela, aita bezala langile, eta inork ez diola laguntzen. Baina herriaz ere antzera mintzo dun. Esaten din historiaren tabernan ardoa mindua edaten duen herria dela berea; tira, gurea.

—“Ardo mindua historiaren tabernan”. Ederra!

*Gizon arruntaren koplak* entzunarazi nizkion ondoren eta zoragarri iritzi zien haiei ere.

Lurretik ilargira joan-etorri ugari egiten genuen garai hartan Fabianak eta biok, AGK Aginte Global Konputerizatuaren IZE Ilargiko Zerbitzu Estazioan mantentze-lanak egiteko, eta bidaietan musika entzun eta musikari buruz hitz egitea eta eztabaidatzea maite genuen.

—Beste kantari bat gaixotu eta haren orde zaula gainera igota eman omen zinan lehen kantaldia Xabier Letek —azaldu nion bidaiari haietako batean, Leteren musika lehen aldiz entzunarazi nionetik pare bat atera edo.

—Bazekiat —eten zidan, ni harrituta utziz—. Kantaldiaren ondoren, orduan osatzen zuten taldeko beste kide batek zer esan zion ere bai: “Hik ez duk teknikarik, hi haiz basapiztia bat. Hain gaizki kantatzen duk, hik kristoren arrakasta izango duk”.

Nik berari euskal kantariena bezala, ilargirako gure lan bidaietan Fabianak Italiako kantarien berri ematen zidan niri, eta Italiako punk taldeena ere bai askotan, punka oso maitea baitzuen. Baina nik ez nion kasu handirik egiten. Fabiana, aldiz, Leterekin kateatuta geratu zen, gero eta pasio handiagoz.

—Orain, igurtziaren eraginez edo, hura hobeto ulertzearen poderioz, kanturik leunenak ere gustatzen hasi zaizkidak —esan zidan aurrerago—. *Habanera* ez diat oso ondo eramaten

oraindik. Ez zegok erabateko amodio perfekturik! Baina *Xalbadorren heriotzean* gustatzen hasi zaidak, baita *Heriotzaren begiak* ere. Ni naiz, *Sinisten dut* eta *Ez dut amets haundirik* ere ikaragarriak ditun! Indar handiko poeta eta kantaria duzue Lete. Beti zakar baina beti maitekor, beti errietan baina beti samurtasun ezkutu halako batez. Maitasun gatazkatsuen ekaitz giroan beti.

Leteretik pasioak bultzatuta, haren garaiko beste euskal kantarien lanak ere sakon ezagutu zituen Fabianak, neuk baino sakonago: Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo, Julen Lekuona, Antton Valverde... Baina inork ez zion Xabier Letek adinako zirrararik eragiten.

—Hara, Laboa eta Lertxundi, zer esango diat ba nik... —esan zidan—. Urrutira eramaten haute, bikainak dituk basoaren erdian galtzeko, mendien gainetik hegoak altxatzeko edo ur abisaletan igeri egiteko, baina Letek asfalto urratuta eta mila zulo eginda duen kale bateko etxe baten atarira eramane eta piltzarrez jantzitako umeen jolasei begira jartzen hau. Oso lurtarra duk, oso kalekoa, oso... *Langile baten semea*, gizon arrunta, amets egin nahi eta ezinean munduari zakar zaunka eta ostikoka. Ezin duk kasualitatea izan: Letek ez dik kantu bakar batean ere aipatzen ilargia.

—Bai, orde, izarren hautsa...

—Bai, baina izarren hautsa ere, Leterengan, lurtarra duk zeharo. Kantu hori ere hankak lurtean zituela eta ostikoka kantatzen zian.

Elkarrekin egindako azken bidaiari izan zen hura. Ilargira iristen ari ginela, meteorito batek jo zuen bete-betean gure ontzia, eta ni ozta-ozta salbatu nintzen Fabianarekin batera hutsean erori, ezerezean amildu eta hauts bihurtzetik.

**GIZON ARRUNTA, AMETS EGIN NAHI ETA EZINEAN MUNDUARI ZAKAR ZAUNKA ETA OSTIKOKA**



Egunean Behin lehiaketako ordezkariak eta Osasun Etxea irratsaioko kideak, Maider Lainez Andoaingo alkatearekin eta Bingén Zupiria Kultur Sailburuarekin batera. AIURRI

#### Erredakzioa ANDOAIN

Ekitaldi dotorea antolatu zuen Udalak, musikaz eta ikus-entzuzkoen aberastuta. Sari nagusiak bi izan ziren.

#### Kazetaritza saria 2020: Osasun Etxea

Epaimahaiaren erabakia: “Arantxa Arza kazetariak eta Felix Zubia medikuak osasun-kontsulta zabaltzen dute igande goizero Euskadi Irratian. Saioak entzuleei kalitatezko zerbitzu publiko eredugarria eskaintzen diela azpimarratu nahi du epaimahaiak, bereziki COVID-19ak mundu zabalean eragindako datu eta iritzi-anabasaren testuinguruan. Zer den alea eta zer lastoa bereizten lagundu duen erreferente informatiboa bilakatu da Osasun Etxea irratsaioa. Ez da koronabirusaren nondik norakoak azaltzera mugatu; izan ere, entzuleek beste edozein gai-xotasunaz helarazitako kezka eta zalantzei erantzun diete, beti zehaztasunez, erraz ulertzeko moduko hizkera erabiliz”.

#### Komunikazio saria 2020: Egunean Behin

Epaimahaiaren erabakia: “Euskaratik eta euskaraz sortutako 80.000tik gora galdera ditu egun

# Rikardo Arregi sariak

Beste behin ere, Andoain euskarazko kazetaritzaren plaza nagusi bilakatu zen. Euskaraz banatzen diren sari garrantzitsuenak dira, Rikardo Arregiren izena daramatenak. Aurtengo ekitaldian Xabier Lete gogoan hartu dute

datu-basean tribial estiloko joko honek. Haren helburua da euskara sustatzea eta euskal kultura ezagutaraztea. Aplikazioak 100.000 deskargen langa gaintzea lortu du eta horietatik gehienek jokatu izan dute egunero. Komunikazio-esparrua aldatzera datorren tresna nagusiari –Internet eramangarria duen eskuko ordenagailu-telefonoari– modu irudimentsu eta arrakastatsuan heltzen dion proposamena da. Mugikorrarentzat egina izatean, edozein lekutatik parte har daiteke, gehienegun egunean behin eta denbora mugatua. Joko-jolasaren bitartez

euskarazko erabiltzaileen komunitatea eraikitzeke tresna dugu CodeSyntaxek merkaturatu duen APPa. Azpimarratu behar da taldean jokatzeko aukera ematen duela eta 40.000 talde inguru daudela sartuta jokoan. Hala, dagoeneko komunitate bat bildu da jokoaren inguruan, #eguneanbehin traolarekin sare sozialetan isla duena. Etengabe berritzen doan egitasmo honek, gainera, mugikorrerako aplikazio batek eskain dezakeen aukerak gaintitu ditu, erabiltzaileei Youtubez erretransmititutako zuzeneko partidak jokatu eta jarraitzeko aukera emanez”.



Xabier Lete gogoan hartu zuten aurtengo ekitaldian. AIURRI

## Aurtengo finalistak

2019tik sariketa bi atal nagusitan banatzen da. Lehen kazetaritza saria, eta bestea komunikaziora.

### “Kazetaritza saria” atala. Finalistak:

- Arantxa Arza eta Felix Zubia, Euskadi Irratiko Osasun Etxea irratsaioagatik.
- Miel Anjel Elustondo, Berriaren argitaratutako “Tonban ehortzirik” testu sortagatik.
- Euskadi Irratiko Albiste Faktoriaren lantaldea, 2019ko irailetik 2020ko iraila bitartean egindako irratsaioengatik.
- Berria egunkarian “Koronabirusaren azken datuak” atala egin duen lantaldea, aipatutako sekzioagatik.

### “Komunikazio saria” atala.

#### Finalistak:

- “Egunean behin” jokoak, CodeSyntaxek egina.
- “Ene kantak” proiektu komunikatiboa, 2019-2020an emandako saltoagatik.
- Arteman, “Lur eta amets” filmaren komunikazio prozesuagatik.
- Mendiak eta Herriak elkarteak, Et Incarnatus Orkestra eta Sorland Komunikazioa, “Urmuga” proiektuaren spotagatik.



Emezabal Udal Musika Eskolako Bandaren zuzendaria, Aranburu sendiarekin. AIURRI

# Luxio Aranburu gogoan hartu zuten

Santa Zezilia eguneko zikloaren barnean, Udal Musika Eskolako Bandak eta Golden Apple Quartet taldeak emanaldi arrakastatsua eskaini zuten Bastero Kulturgunean. Ekitaldiaren amaieran, Bandako kide zen Luxio Aranburu gogoan hartu zuten

## Xabier Lasa ANDOAIN

Golden Apple Quartet taldeak, Udal Musika Eskolako Bandaren laguntzaz, kontzertu bikaina eskaini zuen Basteron.

Frankismoaren urte ilun haetan bizi pizgarri izan zen Los Xey taldearen erreperitorio klasikoarekin ikuskizun polita eskaini zuen Golden Appel Quartet taldeak, maisuki kantatuz eta ironiaz jositako antzezpena gehituz. Adinean aurrera doazen entzule askoren oroitzapenak berritzeaz gain, gazteagoi aurreko belaunaldikoentzat zeintzuk izan ziren doinu famatuak jakinaraztea lortu zuten.

Erreperitorio zabala eta anitza eskaini zuten, Udal Musika Eskolako Bandarekin batera. Tartean, *Oh Pepita!*, *Okilla*, *La bella Lola*, *Poupourri sanferminero*, *Maitetxu mia*, *Me lo dijo Adela*, *No hay novedad señora Baronesa...* Taldea ezagutu nahi duenarentzat, Los Xey-ren zenbait bideo ikusgai daude YouTube. Adibidez, *Oh Pepita!*

Goldenekoek ondoan Xabier Zabala akordeoilaria izan zuten, eta horrek Los Xey-n Pepe Iantzik bete ohi zuen funtzioa bete zuten. *Ecos Gipuzcoanos* abestiaren ueña iritsi zenean, Udal Musika Bandako Jaime Eguzkitzak eta Xabier Zabalak elkarrekin jo zuten. Pepe Iantziri egin zioten keinu polita izan zen, izan ere, Eguzkitza gaztetan haren ikaslea izan zen.

## Bandako kide zen

### Luxio Aranbururi omenalditxoa

Musika Bandak gogoan hartu nahi izan zuen hil berri den Luxio Aranburu klarinete jolea, eta kontzertua bukatu ostean Mikel Emezabal zuzendariak Bandako kide guztiek sinatutako erretratua eskaini zien Aranburu familiako kideei. Santa Zezilia zikloari amaiera emateko keinu polita izan zen.



Erreperitorio zabala eta anitza eskaini zuten Golden Apple Quart-eko kideek. AIURRI



2013koan berdintasunaren aldeko lekukoa eraman zuen Langarak. AIURRI

## Niko Langara zendu da, andoaindar aski ezaguna

2013ko "Martxoak 8, 8 emakume" kalejiran omenduetakoa izan zen



Niko Langara. ANDOAIN

## Xabier Lasa ANDOAIN

Ingurukoan eta herrikide askoren artean arrastoa utzi duen emakume horietakoa da Niko Langara. Bereziki bere auzunean, Etxeberrietan. Bizi-bizia, baiko-rra, ekintzailea izan zelako. Ekintzailetasun horrek, besteak beste, kirol jardueretarako Andoaingo lehen emakumezkoa izatea eraman zuen. Aitzindaria izan zen 60ko hamarkadaren amaieran, emakumeek ere kirola egin behar zutela aldarrikatzeko orduan. Donostian gimnasiako irakasle izateko titulua lortu eta emakume talde batekin hasi zen jarduera fisikoa lantzen, Agustin Leitza Kanean zegoen Familia eta Gizarte Formaziorako Egoitzan. Bere izaera airosarekin, gizonezkoa nagusi zen gizarte itxi hartan, kirola egitea posible zela sinestarazi zien hainbat emakumeri.

Egindako ahalegina aitortuz, Niko Langara 2013ko "Martxoak 8, 8 Emakume" ekitaldian omendu zuten. Urte hartan zenbait alorretan nabarmendutako zen-

bait emakume omendu zituzten: Dolores Iztueta, Begoña Tolaretxipi, Irene Arregi, Niko Langara, M<sup>a</sup> Cruz Bidarte, Rosario Río, Esperanza Rodriguez, Maialen Santa Kruz, Ixiar Eizmendi, Leire Aizpurua eta euskararen transmisioan funtsezkoak izan ziren amak.

Ekitaldi horren harira, Langarak honakoa adierazi zuen: "Donostiara joan nintzen gimnasiako irakasle izateko titulua atertzera. 40 urte nituela hasi nintzen, eta 62 urterekin edo utzi nuen. Berrikuntza nabarmena izan zen Andoaingo gizartean, ez baitzegoen ez gimnasiarik, ez kiroldegirik, eta gutxiago aerobic-a praktikatu edo eta paseoan joateko ohiturarik; emakumeek ia-ia galarazita geneukan inolako kirol jarduerarik egitea.

Gimnasiako ordu hura forma onean jartzeko ez ezik, sozIALIZATZEKO ere erabiltzen zuten emakumeek. Estiramentuak, abdominalak, arnasketa-arietak... Denetik egiten genuen; egur latza ematen nien, baina poz-pozik etortzen ziren emakumeak. Ni neu ere ederki asko antolatzen nintzen, hango lanak egiteko eta etxean hiru seme-alaba hazteko".

Azaroaren 29an hil zen, 88 urte zituela. Pablo Izagirre senarra eta Mertxe eta Pablo seme-alabak utzi ditu; bere garaian Pablo eta Martin semeak hil egin zitzaizkion. Nikolasa Langara Andoainen 1932an jaio zen; Modesto Langara eta Sebastiana Txopeiaren alaba zen.

# Pandemia hilezkorrari hozkada feminista

Aldarri feministez bete ziren Euskal Herriko txoko guztietako kaleak genero indarkeriaren aurkako egunean, baita Buruntzaldean ere. Batzuetan isiltasuna izan zen nagusi, besteetan haserre oihuak

## Erredakzioa URNIETA

Hala ere, guztiek zuten abiapuntu bera, erantzuna ematea etenik ez duen pandemia matxistari, hain zuzen. Oihal more bat bota zuten Andoaingo Udalaren balkoitik Goikoplazara. Zuhaitz bat irudikatuta zegoen bertan. Sustraiekin bat egiten zuten askotariko koloretako ohialak zeuden zintzilik, eta horiei eutsita kate luzea sortu zuten bertaratu ziren herritarrek. Tronboi baten melodiak girotu zuen elkarretaratzea. Amaitzeko, Petri Romerok hartu zuen hitza, Berdintasun zinegotziak, alegia. Haren esanetan, konpromiso politikoa ezinbestekoa da herriak eta hiriak bizikidetzatza "seguru, solidario eta berdinzalera" gune gisa indartzeko.

Bestalde, hainbat herritar gerturatu zen Urnietako San Juan plazara iluntzean. Isiltasunak hartu zuen elkarretaratzea eta txalo artean amaitu zen. Gainera, arratsalde horretan bertan herrian ordezkariak duten hiru alderdietako kideak bildu ziren udaletxean, baita Asier Niebla bizilagunaren senideak eta lagunak ere. Biktimaren kontzeptuaren esanahia zabaltea eskatu zuten, zeharkako biktimen lege-babesa izan dezaten. Proposamena Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari bidaliko zaie.

## Eskualde mailako manifestazioa

Hirugarren geldialdia egin zuten Buruntzaldeako herrikideek Lasarte-Orian, izan ere, Buruntzaldeako Neska\* Gazteek eskualde mailako manifestazioa deitu zuten. Okendo plazan ekin zioten ibilbideari, bi lerrokada luzetan antolatuta: "Gure hautan berresten gara, elkar zainduz eta autodefentsa feministaren bitartez, hortzak erakutsiko dizkiogu ahul eta itzaletan nahi gaituen sistemari. Ez dugu inongo erasorik onartuko!".



Andoaingo udalerrira "seguru, solidario eta berdinzale" modura nahi dute. AIURRI



Urnietan jendetza elkartu zen. Txalo artean amaitu zen bilkura. JONHATANLOPEZ



Buruntzaldeako Neska\* Gazteek eskualde mailako manifestazioa deitu zuten. AIURRI



Antzezle taldea, Berrasoeta parkean. AIURRI

## "Tsunami Euskaraldia" antzezlanaren Berrasoetan


Berasategiren esanetara, Egapetxou antzerki taldeko kideek jendaurreko emanaldia eskaini zuten

## Erredakzioa URNIETA

Egapetxou antzerki talde amaiteurak "Tsunami Euskaraldia" antzezlanaren eskaini zuen joan den igandean, Berrasoeta parkean. Urnietako Udalak Euskaraldiaren barnean antolatutako ekitaldietako bat izan zen. Joxe Mari Berasategiren zuzendaritzapean, Olatz Iturzaeta, Elaia Marruedo, Liam San Jose, Aitor Etxeandia eta Vanesa Sanchez aktoreek fantasia eta umoreaz zipriztindutako obra eskini zieten Berrasoeta parkera igandean hurbildu ziren haur zein helduei.

Donostiako kostaldetik abiatuta Urnietara nola heldu zen tsunamia kontatzen du antzezlanak. Horrek herrian nola sortu duen Berraxuta Bitx hondartza, eta horrekin batera, nola lortu duen aztoratzea hainbat pertsonaje: haur bahitzaileak, turista italiarrak, udaltzainak,

AEK euskaltegiko irakasle eta ikasleak, Marizuloko Miela... Ikusleek ordu erdiko ikuskizun entretenigarriaz gozatzeko aukera eduki zuten, publikoari begirako kultura bazter guztietan horren urri dagoen garai hauetan.



Turistak, Miela... pertsonaia ezberdinak agertu ziren antzezlanean zehar. AIURRI



Urnietako  
udala

# HITZORDUAK

UDAN ZEHAR EKITALDIK AIURRI.ESU GUNEAN ZABALDUKO DIRA. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTIRALA 4

### ANDOAIN Ikuskizuna

"Ez gaude conforme, Lurdes Iriondo eta hamaika lore" ikuskizuna. Lourdes Iriondo gogoan, hainbat kantarik parte hartuko dute.

19:00 Bastero Kulturgunea.

### URNIETA Argazki-lehiaketa

Urnietako Udalak 2021eko egutegia herritarren argazkiekin osatu nahi du.

Azken eguna: Abenduak 4.

## LARUNBATA 5

### ANDOAIN Tailerra

Autodefentsa feminista. Izen-ematea: berdintasuna@andoain.eus.

10:00-14:00 / 16:00-20:00

Allurralde.

### ANDOAIN Erakusketa

Miren Barrena, Leire Lacunza Miranda eta Ibon Landa Amutxategi.

Bastero. Erakusketa gela.

Azken eguna: Abenduak 5.

### ANDOAIN Euskaraldia

Amaiara ekitaldia, Goiburun. Informazio gehiago 9. orrialdean

12:00 San Esteban ermita.



Arizmenditarrak eta alkaindarrak frankismoak zigortu zituen bi familia izan ziren, Urnietan. URNIETAKOERRETRATUZAHARRENLIBURUA

### URNIETA LIBURUAREN AURKEZPEN EKITALDIA

Urnietan Gerra Zibilean eta Frankismoaren lehen urteetan gauzatu zen errepresioa eta giza eskubideen urraketak ikertu ostean, horien berri emango duten bi liburu argitaratuko ditu Urnietako Udalak "Urnietan, 1936-1945 Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan" izenburupean.

Abenduak 11, ostirala. 19:00, Sarobe. Euskaraz eta gaztelaniaz.

## ASTELEHENA 7

### ANDOAIN Sarrerren salmenta

Eguberriei begira, kultur egitarau oparoa antolatuko du Andoaingo Udalak. Sarrerak salgai, astelehenean hasita.

Abenduaren 7tik aurrera salgai.

## OSTIRALA 11

### ANDOAIN Erakusketa

Euskal jantziei buruzko erakusketa zabalik, datorren asteburuan hasita. Tradizioan sakontzeko aukera.

Bastero, erakusketa aretoa.

## ZORION AGURRAK



ANDOAIN Zorionak June Abenduaren 6an lau urte beteko ditu eta primeran ospatuko dugu. Zorionak politta eta segi beti bezain irrifartsu eta alai. Asko maite zaitugu! Etxeokak.



ANDOAIN Enara Aranburu Hilaren 10ean Enarak 9 urte beteko ditu. Segi beti bezain alai. Muxu handi bat etxekoan partetik.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ANDOAIN

#### Larunbata 5, igandea 6

Ansa: Ondarreta, 8. 943 591 302. Andoain.

#### Asteartea 8

Monfort: Aita Larramendi, 26. 943 300 913. Andoain.

### URNIETA

#### Lar. 5, igandea 6, asteartea 8

Tena: Kale Nagusia, 16. 943 543 718. Astigarraga.

## MERKATU TXIKIA

### ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak frantseseko klaseak ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak. 693 692 823 - 665 719 827

9 urteko haurrak, ukelelea ikasteko eskolak hartuko lituzke, Andoain. 650 341 108

### SALGAI

Etxebizitza argitsua salgai Irurako plazan, 3 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Egoera onean eta igogailuarekin. Zatoz ikustera. 666 62 30 79

Volkswagen Passat 1.6 Diesel 110cv 2014koa salgai, 172.000 km. Prezio ona. 659 848 574

### MERKATU TXIKIAN

#### PARTE HARTZEKO

diseinua@aiurri.eus

Whatsappez:

619 163 537

## TELEFONO ZENBAKIAK


### URNIETA

Bertan: 943 008 000. Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000. Ertzaintza: 943 538 840. Osasun zentroa: 943 006 680.

### ANDOAIN

Ataria: 943 300 830. Udaltzaingoa: 943 300 819. Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343. Osasun zentroa: 943 006 670.

## ZINEMA



### ANDOAIN

#### BASTERO

#### Erlauntza

Euskaraz, azpittuluak erdaraz.

Larunbata, 5. 19:00.

Igandea, 6. 19:00.


Astelehena, 7. 19:00.

Asteartea, 8. 19:00

#### HAURRENTZAT

#### "El jinete del dragon"

Larunbatetik asteartera, egunean saio bana 16:30.



### SINOPSISIA

#### Erlauntza

Zuzendaria: Mireia Gabilondo. Gidoia: Kepa Errasti. Aktoreak: Leire Ruiz, Getari Etxegarai, Aitziber Garmendia, Itziar Atienza, Naiara Arnedo, Sara Cozar. Herrialdea: EH (2020). Hizkuntza: Euskaraz. Azpittuluak erdaraz. Iraupena: 92 min.

## "Despedidea", eta beste

Gaztaroen lagun izandakoak nekazalturismo batera doaz asteburu pasa, haietako baten ezkontza despedida ospatzera. Euren arteko loturak handia izaten jarraitzen duen arren,

denborak bere bidea egin du. Trapu zaharrak, elkarri inoiz esan ez zituztenak... Animalien artean ondoen komunikatzen omen diren animaliak errealak dira.

## Tertulia feminista

Andoaingo Emakumeentzako Jabekuntza Eskola

FEMINISMOA  
ETA  
EUSKARA

Idurre Eskisabel

Abenduak 10

osteguna

BASTERO

KULTURGUNEA

18:30

ANDOAINGO UDALA

Emakume eta Gizonen  
Berdintasun lantsaila



# ikusgaitzak

Ezin dira euren familian hazi, eta harrera-familia baten beharra dute. Eta ikusten ez duguna existitzen ez denez, aurpegi eta begiak jartzea erabaki dugu. Lagundu gaitzazu 60 harrera-familia aurkitzen.

[gipuzkoa.eus](http://gipuzkoa.eus)  
Erakutsi dezagun Gipuzkoaren aurpegirik onena.

Udaltzaia  
Euzko Legebiltzari  
Diputazioa  
de Gipuzkoa

ETORKIZUNA  
ORAIN  
DA FUTURE



# EUSKARALDIA

## Itxiera ekitaldia Andoainen

**Abenduak 5,  
larunbata  
12:00**  
Goiburuko ermita

Maizorri txalapartariak,  
Goiatz Salbador abeslaria,  
Ion Beloki, Beñat Beloki eta  
Unai Ormaetxea bertsolariak.